



Bezero kanalak

Gure bezero guztiek gurekin kontaktuan jarri eta nahi dutena erreserbatzeko aukera izango dute, ondorengo kanalak erabiliz:



Sagardotegia: Bezeroek sare sozialen bidez mahai bat erreserbatzeko aukera izango dute. Gure webgunean ere erreserba egin ahal izango da, eta, telefonoz deituz gero, erreserba egitea ere posible izango litzateke.



Diskofesta: Bezeroek diskofestaren iragarkiak sare sozialetan ikus ditzakete, eta, horrez gain, gure webgunean sarrerek erosteko aukera izango dute.



Erakusketak: Gure webgunean erakusketen atala prest daukagu, edozein artistak gurekin harremanetan jarri ahal izateko. Erakusketen eskaerak jasotzeko telefono berezi bat ere badaukagu. Gainera, artistarekin bilera baten bidez zuzeneko harremana izateko aukera ere eskaintzen dugu.



Azterketak: Edozein pertsonak ezin izango luke erreserba egin; udaletxeak edo gobernuko erakunde batek egin beharko luke. Erreserba berezi hauek egiteko, gurekin telefonoz edo korreo jarri beharko lirateke harremanetan.

- Zein bide erabiliko dituzu

Sare sozialak: Instagram, YouTube, Gmail, Whatsapp, TikTok eta X-en bidez gure enpresa promozionatuko dugu, ekintza guztiak azalduz, eta webguneko atal desberdinetan sarrerek eta abar erreserbatzeko aukera eskainiz edo gurekin kontaktuan jartzeko.





Eskaintza fisikoa: Gure pabelloian sarrerak fisikoki erosteko aukera ere izango dute bezeroek, internet erabiltzeko trebetasunik ez badute. Egia da, online bidez erosteko aukera gehiago dagoela, jende gehienak sarrerak webgunean aurrez aurre erosten baititu. Hala ere, fisikoki azken momentuan erostera etortzen direnek seguruenik sarrerak agortuta aurkituko dituzte. Gainera, bilera-gela bat edukiko dugu bezeroekin kontaktu fisiko bat edukitzeko, negoziazioak egiteko eta zuzen-zuzeneko kontaktu bat mantentzeko.